

USPARITXAKO AUZUNEA EZ DAUKAT AHAZTUTA IZTEKO

Mendipe baten dago Uspitxa Jauregi.

Nere txikitxutako jolasen lantegi.

Pozik egingo neukez idazten urte bi.

Zenbat maite zaitudan azaldu banegi.

Bost etxe eta zazpi bizileku ditu Usparitxak. Jeuri, bizitza batekoa; Auzokoa, bikoa; Aurtenetxe, batekoa; Pelipena, batekoa; Goenengoa, bikoa. Zazpi bizileku oneetan, nire ume denboran, 18 urtetik beerakoak 42 ginan. Au 1915garren urtean zan. Mordo ederra benetan. Ortik aparte beste ogei: 14 sasoiko senar-emazte eta 6 zaarrak. Guztira 62 lagun. Erri txikitxu bat, baina ondo betea, eta auzune baketsua. Batek ezbearren bat ebala edo gari ebateak zirala edo bedar zikuak.. auzune guztia mogitzeko eupada bat egitea naikoa zan. Egin bear zana egin ondoren, danak alkartu eta merienda apurren bat egingo zan sendikoak baziran legez. Umeak, batzuk olgetan, aunditxoagoak gurasoei laguntzen, amalau urte bueltakoak otsein. Domekea elduko zan eta gizonezkoak, arratsaldean, tabernara joango ziran. Emakumezkoak leenengo Usparitxako ermitan errosarioa erre-zatuko eben (auzune onek ermita polit bat dauka), gero zelaiko intxaur zabalaren azpian batuko ziran, maai zabal bat jarri eta patxadan jokoan egingo eben. Ilunabarrean, olgetan ebizan neskato mutikoei dei egin eta, nire amak, gehienetan, panderoa artuko eban eta Laudiana auzokoak abestu, eta gaztetxuei dantzan irakasten aaleginduko ziran. Beste andrazkoak ere pozik, neskato-mutikoei begira, alkarrereri esanaz:

— Orrexek dantzaria urtengo jona! Bai! Aita eta ama be onak jozana eta, ara!

Abemaritakoak joteko orduan, Ariatzako kanpairik entzuten ez bazan, San Migel ermitatxuko kanpaia joko eben, iru agur-mari erre-zatu, gabon esan eta bakoitza bere kabira. Gizonezkoak ere sasoiz elduko ziran, kojoren bat izan ezik. Etxe barruko lantxoak egin, errosarioa erre-zatu —au derrigorrezkoa zan—, afaria: taloa eta esnea edo morokila ontzi batetik, eta negua bazan gaztaina eta gainetik morokila.

Ondoren oera, eta ez gaur eguneko koltxoi apatzen gainera, arto kapatzaz egindako lastamarragien gainera baino. Alboko gelakoak entzuteko eran ataraten eben kapatzak zarata, baina alan bear zala eta pozik.

Irakurlea: Jon Enbeita, Muxika